

# **UDALTZABARRAREN AKORDIOA**

**2018-12-11**



Esp.kodea: 2018DPRE0001

Gaia: 2019 URTEKO UDAL AURREKONTUA  
Hasiera eguna: 2018/12/04

## ZIURTAGIRIA

Ana Belen Hidalgo Corral JAUNA/ANDREA, ARRASATEKO UDAL  
AGURGARRIKO IDAZKARIA

NEUK ZIURTATUA:

Udal Plenoak, 2018ko abenduaren 11n egindako bilkuran, besteak beste, honako akordioa hartu zuen:

### **“6.- PROPOSAMENA 2019 EKITALDIKO UDAL AURREKONTUAK ONARTZEKO (2018DPRE0001)”**

Udal Plenoak, aldeko 11 boturekin (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta aurkako 9 boturekin (EH BILDU, Baleike eta Irabazi), Ogasun, Diruzaintza eta Ondaren Batzordearen ondoko proposamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Alkateak aurkeztutako 2019 ekitaldirako aurrekontuen proiektua aztertu eta eztabaidatze prozesua burutu eta gero, hasiera batean, informazio batzorde bakoitzari dagozkion partidak eta gorabehera nagusiak batzordeetan azalpenak emanda, eta, gero, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare batzordean adostutako prozesuarekin, aipatu proiektua diktaminatu behar da udaleko osoko bilkuran gaia jorratzeko.

Gastuen atalari dagokionez, proiektu horrek oinarria du udal sailek egindako eskaeretan, eta sarrerei dagokienez, udalak hartutako erabakietan gehi beste administrazioetatik jasotako informazioetan.

Emendakinak aurkezteko emandako epean ez da aurkeztu inolako emendakinik. Dena den, Gobernu taldearen aldetik zuzenketa eta aldaketa proposamenak aurkeztu dira, 68.850 euroko gastu gehikuntza garbia suposatzen dutenak, eta hura finantzatzeko ahalbidetu nahi dena sinatu beharreko mailegu berri “teorikoa”ren kopuruaren bidez (errealitatean, balioesten da ez dela beharrezkoa izango, espero baita nahiko soberakin lortzea 2018ko likidazioaren testu inguruan). Zuzenketa horiek batzordean aztertu eta botaziora jarri eta gero, EAJ-PNVko ordezkari bien eta PSE-EEko ordezkariaren aldeko botoekin, BALEIKE eta IRABAZI udal taldeetako ordezkarien kontrako botoarekin, eta EH BILDU udal taldeko ordezkariaren abstentzioarekin onartu dira; horren ondorioz, aurrekontu proiektuan sartu dira.

Onartutako aldaketak proiektuan sartu eta gero, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare batzordean aztertu da 2019 ekitaldirako aurrekontu proiektua, zenbateko hauekin:

<b>Kodea</b>	H18/04181	<b>Udala</b>	ARRASATE
<b>Data</b>	2018/abe./18	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAA81Y7.L.rdhv
<b>URL</b>	<a href="https://munigex.net/r/eu/55/AAA81Y7L.rdhv">https://munigex.net/r/eu/55/AAA81Y7L.rdhv</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2018DPRE0001

Gaia: 2019 URTEKO UDAL AURREKONTUA  
Hasiera eguna: 2018/12/04

**2019KO EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUAK**, jarri dena udalbatzarrak onartu dezan, hogeita hamabost milioi berrehun eta hamalau mila eta bostehun eta berrogeita zortzi euro eta hamazortzi zentimo euro (35.214.548,18 €), eta aurrekontu horretan sartuta daude **UDALAREN BERAREN AURREKONTUA**, hogeita hamahiru milioi laurehun eta berrogeita zortzi mila ehun eta laurogeita bost euro eta hirurogeita hamabi zentimo euro (33.448.185,72 €) eta **ITURBIDE EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA**, soilik 2019ko 1. sei hilerako dena (**KABIA** foru elkartean sartzeagatik), milioi bat zazpiehun eta hirurogeita hamazazpi mila eta hirurehun eta hirurogeita bi euro eta berrogeita sei zentimo euro (1.777.362,46 €).

Aipatutako proiektua aztertu eta gero (partidak, exekuzio arauak eta konpromiso kredituen eranskinak barne), Ogasun, Diruzaintza eta Ondare batzordean bozkatu da. Botazioaren emaitzaren arabera, Ogasun batzordeak aldeko txostena ematen dio proiektuari, EAJ-PNVko ordezkari bien eta PSE-EEko ordezkariaren aldeko botoekin, BALEIKE eta IRABAZI udal taldeetako ordezkarien kontrako botoarekin, eta EH BILDU udal taldeko ordezkariaren abstentzioarekin, eta osoko bilkurari proposatzen dio akordio hau hartzea:

1.- Hasiera batean onartzea 2019ko ekitaldiko aurrekontu orokorra. Barne hartzen ditu UDALAREN beraren AURREKONTUA eta ITURBIDE EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA, aurrekontu bakoitzaren exekuzio arauekin batera, eta udalaren beraren aurrekontuaren konpromiso kredituen eranskina ere bai.

2.- Espedientea jende aurrean erakustea, interesdunek aztertu dezaten eta bidezkotzat jotako erreklamazioak aurkeztu ditzaten, 15 egun balioduneko epean, jende aurrean erakusteko, iragarkia argitaratzen denetik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

3.- Espedientea behin betiko onartzea, jende aurrean erakusteko, aldi horretan erreklamaziorik jaso ezean aurrekontuaren aurka”.

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2018ko abenduaren 18an.

O.E.

Alkatea

<b>Kodea</b>	H18/04181	<b>Udala</b>	ARRASATE
<b>Data</b>	2018/abe./18	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAA81Y7.L.rdhv
<b>URL</b>	<a href="https://munigex.net/r/eu/55/AAA81Y7L.rdhv">https://munigex.net/r/eu/55/AAA81Y7L.rdhv</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

